


Gabonetako Hiriko Koloniak 2024 Barakaldo



Data eta lekuak

Gabonetako oporretan, hainbat hiri-udaleku eskainiko zaizkie Barakaldon erroldatutako 3 urtetik 11 urtekoentzat. Barakaldon erroldatutako Haur Hezkuntzako 3. maila eta Lehen Hezkuntzako 6. maila arteko haurren artean. Abenduaren 23-24-26-27-30-31an eta urtarriaren 2 eta 3an.

1 aldea: Gurutzeta

Juan Ramón Jiménez Hl. 35 toki.

2 aldea: Barakaldo

Ibaibe Hl. 105 toki.

Plaza horien % 5 dibertsitate funtzional fisiko eta/edo psikikoa duten umeentzat erreserbatuko dira, baldin eta gutxienez % 33ko onarpen ofiziala badute. Aipatu txostena erantsi beharko zaio eskabideari.

Baztertu egingo dira ziurtagiri ofiziala ez duten dibertsitate funtzionalak, hala nola ikasteko nahasmendua, jokabide-nahasmendua, etab.

Antolakuntza arrazoiak direla tartean, eskaintako ikastetxeen ordez beste ikastetxe batzuk eskaini ahal izango dira.

Jantokia

Toki guztiek izango dute jantoki zerbitzua, aukeran.

Elikagai jakin batzuek intolerantzia edo/eta alergia eragiten baldin badiote norbaiti, izena-emateko orrian adierazi beharko du, bai eta adierazitako intolerantzia edo alergia egiaztatzen duen mediku-txostena erantsi ere.

Ordutegia

Parte-hartzaile guztientzako sarrera ordutegia 8:15etik 9:00etara bitartekoa izango da. Irteera-ordutegiak desberdinak izan daitezke jantoki zerbitzua dela-eta, egindako aukeraren arabera.

“Jantokia ez” aukera egin dutenentzako irteera-ordutegia 14:00etatik 14:15era bitartekoa izango da. “Jantokia bai” aukera egin dute-

nen-tzat, berriz, 15:00etatik 15:15era bitartekoa.

Hizkuntza

Euskara. Hala ere, euskara maila ez da baldintza erabakitzailea izango.

Izena emateko epea

Urriaren 28tik 31ra.

Itxaron zerrendan geratuko dira epe horretatik kanpo izena eman dutenak.

Izena emateko

Izen-ematea online egingo da, BakQ txartel elektronikoa duten familientzat, Barakaldoko Udalaren webgunean: egoitza elektronikoa (bilatzailean, adierazi koloniak), edo telefonoz, bai 010 zenbakira, bai zentro zibiko eta kultur etxeetako zenbakietara deituta, ohiko ordutegian.

* BakQ txartela doan eskura daiteke Herri-tarrentzako Arreta Zerbitzuetan, aurretiko hitzordurik gabe.

Prezioa

Hileko diru-sarreraren arabeko tarreak.

1. tartea: 0-889,88 € bitarteko diru-sarrerak edota Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten familiak edota GET programan parte hartzen duten adingabeak edota harre-
ra-etxeetako adingabeak.

Jantokirik gabe: 9,04€

Jantokia barne: 9,04€

2. tartea: 889,89tik 978,88ra.

Jantokirik gabe: 17,12€

Jantokia barne: 17,12€

3. tartea: 978,89tik 1076,78ra.

Jantokirik gabe: 25,20€

Jantokia barne: 25,20€

4. tartea: 1076,79tik 1184,47ra.

Jantokirik gabe: 41,44€

Jantokia barne: 49,52€

5. tartea: 1184,48tik 1302,93ra.

Jantokirik gabe: 57,60€

Jantokia barne: 69,68€

6. tartea: 1.302,94tik gora.

Jantokirik gabe: 73,76€

Jantokia barne: 89,92€

Hiri-udalekuetan seme-alaba (neba-arrebak) bat baino gehiago dituzten familiei honela aplikatuko zaizkie tarreak:

lehen seme-alaba: diru-sarreraren arabera dagokiona baino tarte bat txikiagoko zenbatekoa (aplika daitekeen gutxienekoa, 1. tartea).

Bigarren seme-alaba: diru-sarreraren arabera dagokiona baino bi tarte txikiagoko zenbatekoa (aplika daitekeen gutxienekoa, 1. tartea).

hirugarren seme-alaba eta ondorengoak: diru-sarreraren arabera dagokiona baino hiru tarte txikiagoko zenbatekoa (aplika daitekeen gutxienekoa, 1. tartea).

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten familien edo GET programan eta/edo harrera-etxeetan parte hartzen dutenen kasuan, ez da beharrezkoa izango dokumenturik eranstea, Udalak berak egin ahal izango baititu beharrezko egiaztapenak.

Tarreak kalkulatzeko, baterako aitoprenak bada, likidazio-oinarri orokorra zati 14 egin behar da; eta banakakoak edo bereziak badira, berriz, kide bakoitzak aurreko eragiketa egin behar du, eta ondoren, emaitzen batuketara.

Zozketa

Tokiak zozketa elektronikoa bidez esleitu dira azaroaren 5ean.

Zenbaki bat aterako da jaso diren eskabide guztien artean, eta ateratako zenbaketatik abiatuta osatuko dira eskaintzen diren txanda eta ikastetxeetarako onartutako zerrendak.

Barakaldoko Udalaren web orrian -egoitza elektronikoa (bilatzailean, adierazi koloniak)- jakinaraziko da zozketaren emaitza, umea

onartua izan den ala ez adieraziz, bai eta, onartua izatekotan, kolonia egingo duen ikas-tetxearen izena ere.

Ordainketa

Umea udalekuetarako onartzen bada, zozketaren egunean bertan bidaliko da autolikidazioa aurretiko inskripzioan adierazitako helbidera.

Mesedez, egon adi mezu elektronikoa noiz helduko, eta begiratu ohiko postontzian eta spam-ontzian zer dagoen.

Mezurik jaso ezean, herritarren arretarako zerbitzuetan, zentro zibikoetan eta kultur etxeetan eskatu ahal izango da, eta postaz ere bai laboin@barakaldo.eus adingabearen izena eta adjudikatutako udalekua zehaztuta.

Prezioa adierazitako aldi ordaindu ezean, plazari uko egin zaiola pentsatuko da, eta itxaron-zerrendako lehenari emango zaio (plaza eskuratu dezakeela jakinaraziko zaio).

Matrikularen diru-kopurua jardura etenez gero soilik itzuliko da.

Adjudikatutako plazari uko egin nahi dioten familiek mezu elektronikoa bidali beharko dute laboin@barakaldo.eus helbidera, adingabearen izena eta ikastetxea zehaztuta. Horrela azkarrago artatu ahal izango dugu itxaron-zerrenda.

Elkarbizitzarako eta baloreak ikasteko espazioak dira koloniak, eta horregatik egon behar dute bizikidetzara eta lankidetzara arauen mende.

Horrenbestez, parte hartzen duen umeren batek arauak betetzen ez baditu, koloniatik kanporatua izan daiteke.

